

## **BADIERA**

### **KABUVERDIANU, BADIANO, CABOVERDIANO**

**Language family:** -

**Language codes:**

**ISO 639-1** -

**ISO 639-2** -

**ISO 639-3** -

**Beste izen batzuk (autoglotonimoa: Kriolu, Kriol):**

caboverdiano alt kabuverdianu [KEA].

kabuverdianu [KEA] hizk. Cabo Verde Uharteak; baita AEB, Alemania, Espainia, Frantzia, Herbehereak, Italia, Luxenburgo, Portugal, Senegal ere.

### **CABO VERDE UHARTEAK**

kabuverdianu (caboverdiano) [KEA] 393.943 hiztun, Sotaventoko 255.101 edo hiztunen % 65 eta Barlaventoko 138.842 edo % 35ak barne (1999, SIL, Steve and Trina Graham); herrialde guztietako populazio osoa 934.000. Sotaventoko dialektoa Santiago, Maio, Fogo eta Brava Uharteetan; Barlaventoko dialektoa Santo Antão, São Vicente, São Nicolau, Sal, eta Boa Vista Uharteetan. Halaber mintzatua AEB, Alemania, Espainia, Frantzia, Herbehereak, Italia, Luxenburgo, Portugal, Senegalen ere. Portugesean oinarritutako kreolera. Dialektoak: sotavento, barlavento. % 59ko antza Ginea Golkoko kreolerekin; % 29 eroso portugesearekin, % 36 ez eroso eta % 34 blokeaturik. Independentziaz gero (1975) kreolera portugezari nagusitzen; portugesa nagusiki TB eta irratan, kongresuetan, klaseetan, elizetan eta atzerritarrekin; badago kreolera continuum bat eta nolabaiteko deskreolizazio bat ere. Hizkuntza nazionala, hiztegia, gramatika, irрати programak.

Hizkuntza / lengua: badiera / cabuverdianu / badiano caboverdiano.

Hiztunak / hablantes: 393.000. Herrialde guztietan: 934.000 (Rafael del Moral).

Herrialdea / país: Cabo Verde.

|  |  |
|--|--|
|  |  |
|--|--|

**HISTORIA.** Hiztegi honen asmoa Santiágun mintzatzen den kreoleraz bakarrik jardutea da. Portugesean oinarritzen den kreolera. Hala ere, Santiáguko kreolera ezagutzeak posible egin dezake artxipelagoko uharte gehienetan mintzatzen diren hizkerak ulertu ahal izatea, Santo Antaoko nekazal eskualdeetan izan ezik agian. Lexiko honek 1800 baino hitz gehiago jasotzen ditu eta benetan hor daude egunero erabiltzen den hitz kopuru nagusia. Kreolera ez da oraindik hizkuntza ofiziala eta gainera ez dago erabat finkatua.

**HIZKUNTZA.** Ezaugarri nagusiak.

**Fonetika. A)** Ahozko 5 bokal daude eta beste zortzi sudurkari. Bokal sudurkariak portugesez edo frantsesez baino askoz gutxiago nabaritzen dira. Nekazarien munduko kreoleran ez dago kasik bokal sudurkaririk silaba postonikoan (azentu tonikoaren ondoren). **B)** 23 kontsonante bakun ditu eta 2 bustiak.

**Morfosintaxia. A)** Praktikan ez dago maskulinoa eta femeninoaren bereizketarik. **B)** Bi izen-mota ditu: singularra eta plurala. Plurala lort daiteke: 1) *-s* erantsiz bokal oral nahiz sudurkariz amaitutako hitzei;

**HISTORIA.** Este diccionario se reduce exclusivamente a la lengua criolla hablada en Santiágu. Criollo basado en portugués. Sin embargo, el conocimiento del criollo de Santiágu permite comprender fácilmente las hablas de la mayor parte de las islas del archipiélago, salvo quizá en las regiones rurales de Santo Antao. Las más de 1800 palabras que figuran en este léxico representan ciertamente la gran mayoría de los vocablos empleados diariamente. El criollo no es todavía lengua oficial, ni está totalmente fijada.

**LENGUA.** Principales características.

**Fonética. A)** Hay 5 vocales orales y 8 nasales. Las vocales nasales son mucho menos nasalizadas que las del portugués o francés. En el criollo rural no existe teóricamente ninguna vocal nasal en posición post-tónica (después del acento tónico). **B)** Posee 23 consonantes simples y 2 africadas.

**Morfosintaxis. A)** La distinción entre masculino y femenino no existe prácticamente. **B)** Posee 2 nombres: singular y plural. El plural se obtiene: 1) añadiendo *-s* a las palabras terminadas en

|   |   |
|---|---|
| <p>2) <i>-is</i> erantsiz s ez beste edozein kontsonantez amaitutako hitzei; 3) <i>-s</i> amaitzen diren hitzei <i>-s</i> ordeztuz jarri. <b>C)</b> Artikulu mugaturik ez du. Artikulu mugagabea <i>um</i> da singularrean eta <i>uns</i> pluralean. <b>D)</b> 3 aditz kategoria daude: ahulak, sendoak eta <i>izan</i> aditza. Ia aditz denak dira ahulak. <b>E)</b> Lehenengo 10 zenbakiak badieraz hurrengoak dira: <i>um</i> (1), <i>dós</i> (2), <i>trés</i> (3), <i>kuátu</i> (4), <i>sinku/xinku</i> (5), <i>séx</i> (6), <i>séti</i> (7), <i>oitu</i> (8), <i>nóvi</i> (9), <i>dés</i> (10).<br/><b>Idazkera.</b> Latindar alfabetoa.</p> | <p>vocal oral o nasal; 2) añadiendo <i>-is</i> a las palabras terminadas en consonante que no sea s; 3) sustituyendo con <i>-zis</i> la <i>-s</i> en las palabras terminadas en <i>-s</i>. <b>C)</b> No existe artículo definido. El artículo indefinido es <i>um</i> en singular y <i>uns</i> en plural. <b>D)</b> Hay 3 categorías de verbos: débiles, fuertes y el verbo <i>ser</i>. La casi totalidad de los verbos son débiles. <b>E)</b> Los 10 primeros números en badiano son: <i>um</i> (1), <i>dós</i> (2), <i>trés</i> (3), <i>kuátu</i> (4), <i>sinku/xinku</i> (5), <i>séx</i> (6), <i>séti</i> (7), <i>oitu</i> (8), <i>nóvi</i> (9), <i>dés</i> (10).<br/><b>Escritura.</b> Alfabeto latino.</p> |
|---|---|

## GRAMATIKAK, METODOAK, ESKULIBURUAK

### HIZTEGIAK, LEXIKOAK

**LEXIQUE CRÉOLE DE SANTIAGO / FRANÇAIS - LÉXICO CRIOULO SANTIAGUENSE / FRANCÊS - LÉSIKU BADIU / FRANSÉS**, Nicolas Abrial, República de Cabo Verde, 21x14,5, 108 or., Praia, **1996**.